

I

Igerilariak uraren bakardadean igeri egiten du, inora ez iristeko. Igerilekuaren alde batetik bestera, pentsatzeko astirik izan gabe. Joan etorriak zenbatu eta lau zarrastadan behin arnasa hartzeaz ez ahazteko beste asti du, gehiago ez. Uraren zipli-zaplak markatzen du erritmoa, igerilariaren taupadak.

Bakarrik dago, duela 20 urte, domina olinpikoak irabazten zituen garaietan ez bezala. Ondoren etorriko ziren Tarzan pertsonaia antzezteko garaiak, lau ezkontza eta dibortzioak.

Gaur, Johny Wessmuller, Chicagoko igeritokian joan-etorrien zenbaketa alde batera utzita bizitzaren inguruko gogoetan ari da eta igarotako urteak etortzen zaizkio gogora, baina zarrastadak bezala etortzen diren bezain laster aldegiten dute. Bizitza zenbatzen eman duela pentsatzen du. Egunak zenbatzen, igerilekuaren bueltak zenbatzen, lau emakume, hogeit hamar película, sei domina olinpikoak, proiektu ugari oraino... eta bizitza bakarra.

II

Inter-Continentalaren igerilekurik atera zenean burua guztiz aztoratua zuen Johny arratsalde hartan. Taxi bat hartu zuen nora joan oso argi ez bazuen ere. “Bueltaka ibiliko naiz hiri madarikatu honetan, bueltaka, beti bueltaka, igerilekuan bezala, ene pelikuletan krokodiloekin bezala, bueltaka...” pentsakor zegoen, eta leihatilaren bestaldean euri finak bustitzen zituen Chicagoko harrikak.

- Wheaton 27ra, mesedez –Esan zion gidairiari.

Hainbeste gogoetan artean bazegoen bat burutik kendu ezin zuena; urte batzuk lehenago galdutako emakumearena. Lupita Velezen oroitzapena Johnyren buruko ertzetaraino heltzen zen behin eta berriro, kostalderaino ailegatzen den txalupa bati izando balitz bezala. Oroitzapen nahasiak biltzen ziren memoriaren olatu guzti horietan. Lupitaren irribarrea, Acapulcoko egun koloretsuak, prestatzen zituen mexikar janariak, gorputz korapilatuen gau izugarriak, amaiera ona zuen pelikula baten gidoia izango bailiran.... Baina orduan, amaiera txarra izandako harreman horren gidoiak kolpatzen zuen haren burua; Lupitak aldegin zuen eguna. Zerumuga guztiak grisak ikusi zituen une horretan, eta are grisago ikusi zuen dena urte batzuk beranduago Lupitaren suizidioaren berria eman ziotenean. Tanta batek busti zion masaila, gidariak atzerantzko ispilutik begiratu zion unean.

- Gelditu hemen! –Oihu egin zion gidariari.

- Baina, hau oraindik ez da Wheaton, jauna – lhardetsi zion gidariak.

- Ez du axola, hemen gelditu nahi dut. Zenbat da bidaia? – Taxi gidariari ordaindu zion eta Elmwood parkean gelditu zen.

Etixerantz abiatu zen oinez, hiriaren erraietaraino sartzen zen ur geldoaren gortina azpian. Iluntasuna ixten hasia zen Chicagoren gainean, eta prostitutak kaleak hartzen zituzten dagoeneko Addisonen bidegurutzean. Mexikar neska asko ziren horien artean, Estatu Batuetaraino etorritako bizkar bustiak, gehienak. Gizonen hankatarrean bizirauteko urre beltza bilatzen zutenak. Haien azentuak entzuten zituenean, haien gorputz lirainak itzalen artean nabaritzen zituenean, Mexikora joaten zitzaizkion pentsamendu guztiak, Lupitarengana.

Atzean utzi zuen Addisonen gurutzea eta, ilargiaren argi azpian, York Center eraikuntza ikusi zuenean, oraindik prostituta mexikarrek airean utzitako lurrina usaintzen zuelarik, irudipen bat ikusi zuen, Mexikora aldegingo zuen egun batzuetarako. Aldegiteko beharra sentitzen zuen, bidaia hori zor zion bere buruari baita Lupitari ere. Iraganeko mamuekin aurrez aurre elkartzeko gogoak zituen eta tekilak ematen duen ausardiaz aldegiteko esan, bakean uzteko betiko edota beraiekin eraman zezatela, bederen.....

III

O'Hare aireportutik Mexikora abiatu zen hurrengo goizena. Ia ia bidaia osoa lokaturik eman zuen. Aurreko gauean gaizki eta zatika lo egitearen ondorioa edo.

Mexiko hiriaren gainean iratzarri zuten turbulentziek, eta urduri eta nahastuta bezala esnatu zen. Ikaragarria zen hegazkinetik Distritu Federalaren ikuspegia. Aspaldidanik gogoan ez zuen irudia, hiri erraldoiaren irudia, berriro han zegoen, bere begien aurrean. Beldurra ematen zuen. Hotzikara bat sentitu zuen bizkarrezurra zeharkatuz.

Ekaitz gogor batek eman zion agurra lurreratzean. "Lupitaren malkoak bailiran euriak leku guztietara jarraitzen nau azken egun hauetan", pentsatu zuen.

D.F.ren errailetan murgiltzeko irrikitan zegoen eta taxi bat hartu zuen.

- Insurgentes kalera, Regente hotelera, mesedez – Esan zion indiar itxura zuen gidari txaparro bati. Gidaria eta Johnyk ez zioten elkarri hitzik ere esan bidaia osoan eta aireportutik hiriaren zentrorantz ikusi zuen paisaia beldurrezko filma baten dekoratua iruditu zitzaion. Ekaitza gero eta gogorragoa zen, eta arratsalde ilun iluna nagusitzen zen erraldoiaren gainean.

Publizitate panelen artean sartu ziren Insurgentes etorbidean, eta han urrutian altxatzen zen Regente hotela. Atean gelditu zen taxilaria.

- 300 peso dira, güerito – Esan zuen gidariak. Garesti samar iruditu zitzaion, 26 dolar inguru karrera horrengatik, baina ordaindu zion deus esan gabe, eta maletak hartuz hotelean bilatu zuen euriaren babesa. Nekea nabaritzen zuen eta hotelean atsedena hartuko zuela deliberatu zuen. Mexikon zegoen azkenik, baina orain ez zuen presarik.

Hurrengo goizean, hiriko karriketan paseatuko zituen bere mamuak, Gelara igo zen, dutxa bat hartu eta ohean etzan zen. Telebista piztu zuen eta, hizkuntza oso ongi ulertzen ez bazuen ere, gauaren bakardadea arintzeko oso lagungarria zen. Galavisionen "Ahí está el detalle" Cantinflas mexikar komikoaren filma zahar bat ematen ari ziren. "Ah, ze txarrak diren mexikar aktoreak eta zinema", pentsatu zuen, begiak ixten zituen unean.....

IV

D.F.ren zalapartak esnatu zuen hurrengo goizean. Aurpegia garbitu zuen leunki eta ispiluko irudia apenas ezagutzen zuela pentsatu zuen. Zineman bere aurpegia ikustera ohituta zegoen, baina beste garaietako irudia zen hura, hain zuzen Lupita bizirik eta berarekin zegoen garaietako irudia. Baina, une horretan, nor zen ispiluaren aurrean zegoena? Zer egiten zuen D.F. bezalako hiri erraldoi batean bakar bakarrik? Zeren bila etorria zen? Goizeko hausnarketak patrikan gordetzea erabaki zuen, eta urdailaren hotsak gogorarazi zion bezperan ez zuela afaldu, eta gose zela. Hoteleko kafetegira jaitsi zen. Mexikar dotoreez beteta zegoen, janzki ederrekin beztituak.

- Kruasan bat eta kafe bat, faborez – Eskatu zion neska tabernari gazte bati.

Oraindik erdi lokartuta bazegoen ere urdailaren garrasiak isilarazteko prest zegoen. Haginkada ederra eman zion kruasanari, ia kruasan erdia ahoan sartu zuen, baina bat-batean aurpegiaren zainak sobietar batasunaren banderaren koloria hartzen zutela nabaritu zuen, eta sumendi bat izango balitz bezala erraiak kiskaltzen zizkion zua antzeman zuen, goragalea ere sentitu zuen, baina eskiak ahora eramena eta baso bat ur eskatu zuen ahal izan zuen modian. “Kakazaharra!”m oihu egun zuen bere kolporako. “Txilea, txile mingarra... leku guztietan jartzen dutela ez nintzen akordatzen!” Trago batez edan zuen ura, eta kolora berreskuratuz, kruasan barruan tartekatutakko txile mingarra kendu zuen, eta orduan bai, jateari ekin zion berriro. Kafea amaitu zuenean kalera atera zen eta taxi bat hartu zuen. Azoka handi batean bere urratsak galdu nahi zituen, oso xelebreak iruditzen baitzitzaizkion Mexikoko kale-azokak, eta oso une politak gordetzen zituelako bere memoriaren erregistroan Lupita gerretik helduta, munduaz barrezka xelebrekeriak erosten zituzteneko garaiak.

- Tepitoko merkatura –Agindu zion taxi gidariari, eta honek harridura aurpegiarekin begiratu galdetu zion:

- Ziur zaude, jauna, merkatu horretara joan nahi duzula? Oso leku arriskutsua da...-

Orduan Johnyk, murduskatzen zuen espainieraz erantzun zion ezatsegin:

- Arriskutsua? Ni bai arriskutsua naizela!-

- Ok güero, nahi duzun bezala. Zuk ordaintzen duzu, baina auzora heldu baino koadra pare bat lehenago utziko zaitut, ni ez naiz sartuko Tepiton.

Azoka bat zen auzune osoa. Kalez kale, bukaera ez duen suge bat bezala zabaltzen ziren postuak, eta denetarik aurkitu zitekeen bertan. Ikaragarria zen merkatua bihurtutako auzoa ikustea.

Tepitoren karriketan barneratu zen, eta postu bakoitzean Lupitaren irudia gogorazten zion zerbait aurkitzen zuen. Horrela, esentziak saltzen zituen postu baten aurrean gelditu zen eta Lupitak erabili ohi zuen lurrina usaindu zuen bertan.

- Emaidazu hauetako bat –Esan zion saltzaileari, botilatxoa seinalatuz.

- Zein? Pomelozkoa?

- Bai, zenbat da?

- Dolar bat. Eskaintza berezia zu izateagatik – Iseka doinua nabaritu zuen saltzailearen hitzetan, baina katanarrua atera zuen eta dolar billete ugarien

artean bateko bat atera zuen eta saltzaileari eman zion. Arrete deitu zuen postuaren inguruan Johnyren katanarruak.

Aurrean jarraitu zuen, astiro, giroaren zaporean Lupitaren esentzia dastatu ahal izango balu bezala eta, burua beste leku batean zuelarik, kalezulo txiki eta estu batean sartu zen. Orduan, konturatu orduko labanaz eta pistolez armaturiko lau gizonek inguratu zuen.

Indartsuena eta altuenak taldeburua ematen zuen. Burusoila